

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5343

AGINDUA, 2012ko azaroaren 15ekoa, Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 artikulua arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari.

Goi-mailako kirolari eta teknikarien deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2012ko azaroaren 6an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau jakinarazten denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 15a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI DEKLARATUTAKOAK

Izen-abizenak	Espediente-zk.	Modalitatea
Altuna Lertxundi, Maider	232/12/D	Hockeya
Carazo Tobar, Jon	227/12/D	Arraunketa
Cuevas Ettcheto, Asier	241/12/D	Atletismoa
Elorza Eguiara, Patricia	221/12/D	Eskubaloia
Gaztañaga Dorronsoro, Maider	238/12/D	Triatloia
Irazusta Manterola, Iera	229/12/D	Neguko Kirolak
Manterola Arizmendi, M. ^a Asunción	228/12/D	Neguko Kirolak
Maraña Casado, Patricia	233/12/D	Hockeya
Odriozola Domínguez, Mikel	231/12/D	Atletismoa
Olarra Mugica, Ainhoa	222/12/D	Golfa
Otaegi Garmendia, Leire	224/12/D	Neguko Kirolak
Otaegi Garmendia, Oihane	225/12/D	Neguko Kirolak
Sáenz Jiménez, Aitana	226/12/D	Neguko Kirolak
Sánchez Herrero, Jokin	239/12/D	Piraguismoa

GOI-MAILAKO TEKNIKARI DEKLARATUTAKOAK

Izen-abizenak	Espediente-zk.	Modalitatea
Esturo Loyola, Jon	38/12/T	Atletismoa